



# mantangorri ASTEKO ASMAKIZUNA

Oholtxo zuzen-zuzena,  
ertzean hainbat zenbaki,  
lerro zuzenez bainoago,  
atzamar minduez daki. **Zer da?**

PAU ALEJANDRES / FOCUS



## Berpiztu da lehoia



## ERREPORTAJEA • 'Gure haitzuloetako lehoiak'

●● Arrikruzeko lehoiarena da Iberiar penintsulan aurkitutako kobazuloetako lehoiaren hezurdura osoena. MAIALEN ANDRES / FOKU



# Museotik haitzulora

**M**asailezur zabala, aho handia, eta letagin zorrotzak zituen Arrikruz kobazuloko (Oñati, Gipuzkoa) lehoiak. Haren hezurdura eredu hartuta, 6 eta 12 urte arteko haurrek kartoizko garezurrak sortu dituzte Donostiako San Telmo museoan, gurasoen laguntzarekin. Cova Orgáz eskultoreak gidatutako *Gure haitzuloetako lehoiak* familia tailerlean egin eta apaindu dituzte; astebete barru egingo dute azken saioa, urtarrilaren 26an, 17:00etan.

«Umeentzat erakargarriak dira animalia haragijaleak, desagertutako espezieak eta halakoak.

**Haur eta gurasoek Arrikruzeko lehoiaren kartoizko garezurrak sortzen dituzte San Telmo museo tailerlean, Cova Orgáz eskultoreak gidatuta; urtarrilaren 26an egingo dute azken saioa.**

Horregatik, lehoiaren garezurra eraikitzea lilura garria egiten zaie», azaldu du Cova Orgáz eskultoreak. Tailertera doazenei kartoizko garezurra egiten laguntzen die: «Kartoizko txantilo batzuk ematen dizkiegu umeei, eta haiek nola lotu behar dituzten lantzen dugu

gero. Kartoizko tiratxo bidez lotzen ditugu piezak». Silikona beroarekin itsasten dituzte tiratxoak, gurasoen laguntzarekin.

Miren Akordagoitia San Telmo museoko hezkuntza arduradunak gozatzearen garrantzia nabarmendu du: «Museoa beste ikuspe-

gi batetik eza gutzea nahi dugu tailerarekin: jolasaren eta sormenaren bitartez», azaldu du. Haurrek eta gurasoek elkarrekin aisialdiaz gozatzeko jardura bat ere badela esan du. Gainera, familiek artistak eza gutzeko aukera ere ahalbidetzen du: «Artea lantzea eta artisten eta familien arteko harremana suspertzea ere badu helburu». Asmo horiekin antolatu dute tailerra; bi saio egin dituzte orain arte, azaroan bata eta abenduan bestea.

Lehoia da tailerreko protagonista, baita *Haitzuloetako lehoia* erakusketakoa ere. Hain zuzen, erakusketa horri lotuta antolatu dute tailerra, Akordagoitia azaldu duenez; horregatik, erakusketa bisitatzeko dute tailerreko parte hartzai-



●● Familia tailerrari ekin aurretik, *Haitzuloetako lehoia* erakusketa ikusten dute parte hartzaileek. M. ANDRES / FOKU



## FITXA

- ⦿ **Izena:** 'Gure haitzuloetako lehoiak'.
- ⦿ **Eguna:** urtarrilak 26, larunbata.
- ⦿ **Ordua:** 17:00etan.
- ⦿ **Tokia:** San Telmo museoa.
- ⦿ **Adina:** 6 eta 12 urte arteko haurrak, eta haien familiak.
- ⦿ **Iraupena:** 2 ordu.
- ⦿ **Jende kopurua:** 30 lagun gehienez.
- ⦿ **Prezioa:** 5 euro famiako.

Kartoiak da tailerreko ezinbesteko materiala, eta birziklatutakoa erabiltzen dutela esan du museo-ko hezkuntza arduradunak: «Iraunkortasuna lantzen ere ari gara». Tailerrean ez ezik, egunerokoan ere material hori da eskulorearen lanabesa: «Duela urtebete inguru, kartoiarekin lan egitea erabaki nuen; nire lanaren azken emaitzak kartoiak dira». Familien tailerreko azken emaitzak ere hala dira. Haatik, mugimendua ere badute lehoiek, Akordagoitiak nabarmendu duen moduan: «Covak posible egin du hezurdura artikulatzea eta mugitzea. Muntzian ahoa irekitzeko aukera ematen du».

Datorren larunbatean izango da azken aukera San Telmoko tailerrean parte hartzeko. Haientzako ez ezik, eskoletarako eskaintza ere badu museoak: batetik, erakusketa euren kabuz bisitatzeko aukera dute; eta, bestetik, hezkuntza departamentuak prestatutako jarduerak egin ditzakete. Bi adin tarteri zuzendutako ekintzak dituzte: 6 eta 10 urte arteko haurrek labar artea eta lehoiaren

atzaparra lantzen dituzte; 10-12 artekoek, berriz, labar artea eta hezurdura. Labar artea lantzeko, mural bat margotzen dute, euren sortutako pigmentuekin. Atzaparra sortzeko, berriz, buztina eta plastilina erabiltzen dituzte. Azkenik, lehoiaren hezurdura sortzeko alantza


leek, eskuak zikintzen hasi aurretik. Arrikutzeko lehoiaren hezurdura ikusten dute han, Iberiar penintsulan aurkitutako haitzuloetako lehoiaren hezurdurik osoena. Lehoiarenaz gain, beste animalia batzuen hezurdurak, fosilak, erreplikak eta abar ere badaude 176 piezako erakusketa horretan. Azaroaren 15ean ireki zuten, eta otsailaren 10era arte egongo da ikusgai.

### Eskoletarako jarduerak

Erakusketan ikusitako lehoiaren garezurra sortzen dute tailerrean: beheko masailezurra lehenik, eta burezurra gero. Emaitza berbera lortzen dute guztiek, baina ez da hor amaitzen sorkuntza lana:

apaindu egiten dute gero, buztinarekin, plastilinarekin, artilearekin, margoekin, kartoi mehearekin eta bestelakoekin. «Bakoitzak nahi duen itxura ematen dio bere lehoiari; aniztasuna hain da handia, benetan ikusgarria da azken emaitza», adierazi du Akordagoitiak.

Umeak eurak ere pozik gertzen dira lanarekin. Orgazzen arabera: «Etxera eramaten dute lehoia, eta lagunei erakusten diete; hori ere asko gustatzen zaie».



●● Kartoiarekin egiten dute lehoiaren garezurra; gero, apaindu egiten dute. SAN TELMO MUSEOA

brea erabiltzen dute.